

Irene Kortaberria Larrea

A maila • 1 saria

Irene Kortaberria nauzue, 17 urteko ikaslea. Txindoki institutuan nabil, nahiz eta hau nire azken urtea den. Azken urtea institutuan, azken urtea herrian eta etxean. Idazlehiaketa honetan parte hartuko dudan azken aldia, baina, lehen saria irabazten dudan lehenengoa, eta, ilusioa, ilusioa beti bezain handia.

Gustuko dut margotzea eta musika, baita irakurtzea eta idaztea ere, beti izan baititut gustuko istorioak; lo hartu aurretik kontatzen zizkidatenak eta lo hartu ahal izateko nire buruan asmatzen ditudanak, filmak, telesailak eta liburuak. Fikzioa bere molde eta estilo guztietan. Errealitateetik aldentzeko baino, hau hobe ulertzen laguntzen didatela iruditzen zait, errealitate konplexuak, pertsonaia errepikaezinak eta autorearen islada ezkutatzen baitira istorio onetan. Ondoren irakurriko duzuen kontakizunean hiru gauzok ahalik eta hobekien josten saiatu naiz, zuen gustukoa izatea espero dut.



HITZ IZOZTUAK

Haurra nintzela amonaren etxera joaten nintzen eskolatik irtetean. Gozokiak jaten eta kartetan jolasten igarotzen genituen arratsak. Batzuetan korridoretik mamu bat pasatzen zen, oinak arrastaka, mantso, bere besaulkian erori eta bertan hartzen zuen loak, esnatzean ohera itzuli eta ametsezko dimentsio hartara bueltatzeko. Aitona hil zenetik bizi zen birramona Ana amonarenean, baina inoiz ez zen gurekin egoten. Ez zigun hitz egiten, ezta keinu txiki bat edo begirada bat eskaintzen ere. Indarrak guretzat ikusezina zen errealitatean ezkutatzeko gordetzen zituen. Mamuaren teoria alde batera utzi nuenean gor-mutua zela otu zitzaidan, baina birramonak hitz egin zezakeen. Hiriko kale hutsak errazten zituen haizearen ufada zorrotzen artean, korridoreko azken gelatik, zaratak entzun ahal izan nituen azaroko egun batez. Birramonak hitz egin zezakeen, baina bera bezalaxe, bere hitzek beste mundu batekoak ziruditen. Soinu bitxi horiek ez zuten zentzurik niretzat, baina aldi berean banekien ez zirela erotutako aho batetik irteten ziren hitzak, banekien nonbait, norbaitentzat, bihotzak samin eta atsekabez betetzen dituzten negar-oihuak zirela haiek. Egun batean ulertuko nuen hitz haiek gordetzen zuten oinazea; heriotza baten, bidaia baten, espetxeratze baten eta herriminaren istorio bat kontatzen zuten hots ezezagunek nire sustraiez esateko zutena.

Esnatu nintzenean Luisaren eta Jesusen gorputzak oraindik nirearekin kiribilduak zirauten, baina behe-lainoa basoa esnatzen ari zen eta lehen argi printzak indarra hartzen. Horrek, ordu gutxitan baserri zahar hura utzi beharko nuela esan nahi zuen. Haurren arnas geldo eta sakonari so geratu nintzaion, adin horretan izaten duten usainaz gozatuz eta aurpegitxo horien xehetasunak buruz ikasiz, denborak eta kilometroek hain nirea zen hori eraman ez zezaten. Gurdian igo aurretik ahizpa besarkatu nuen, bere begiradan ondo nekiena beste behin irakurriz: ez zegoen beste biderik. Baserriak ezin zituen beste bost aho mantendu, dirua behar genuen.

Umeak ere etxeko atarian zeuden. Ez dut uste Luisa eta Jesusek beren ama zergatik joan zen ulertu zutenik, ezta zenbat denboran ez zuten ikusiko ere, baina nola edo hala bazekiten nire irribarre ahularen atzean erdibitutako bihotza zegoela, eta ezin izan zioten agur luze hartan negar egiteari utzi. Nire indar eta bero guztiaz besarkatu nituen azken aldiz, baina bero hori ez zen izan nahikoa ama batek utzi dituen haurrengan haziz doan amorru eta erresumina baretzeko. Marik ez zuen anai-arreben haserrearen fruitu bilakatuko zen ama haren oroitzapenik izango eta beraz bere malkoak beste ubide batera isuriko zituen. Xabi, denetan zaharrena, izan zen agur horrek benetan esan nahi zuena ulertu zuen bakararra. Ia gizondurazela aldarrikatzen zuen mutikoak, baina goiz hartan amaren partitzea onartu ezin zuen haur kopetilun bat besterik ez zen izan. Besoak gurutzatuta, muturtuta eta malkoei eusteko izugarritzako indarra eginez jaso zuen nire azken muxua. Aitaren haserretzen zeneko irudia zekarkidan gogora ilun eta makurtutako bekain handi horiekin. Haren irudia etortzen zaidan une bakoitza ukabilkada bat lez sentitzen dut saihetsetan, bihotza txikitzen zait eta bizitza zertxobait gehiago irristatzen da nire gorputzeko zaurietan barna. Oraindik ere gau euritsueta bere ondoan lo nagoela amesten dut, eta bat-batean, tximistak zerua erdibitzearekin batera, gaixotasunak jandako hezur-haragiek besterik ez naute besarkatzen. Ez joateko erregutzen diot, baina azken hatsaz, esan gabeko hitzak airean zintzilik uzten ditu, eta haize bolada batek hauts bihurtuta nire behatzen artetik ihes egiten du. Bakarrik geratzen naiz izara izoztuetan bilduta eta gauak lapurtutako senarra itxaroten izozten naiz ni ere, bere heriotzaren pisu guztia nire gain sentituz.

Egunen batean Xabi aitaren antzeko gizona bihurtzea espero nuen, nik ikusteko aukera izango ez nuen arren. Benetan maitea nuen guztia atzean uzten nuela jakinda, ahal izan nuen denbora luzeenaz saiatu nintzen indartsua izaten, umeen minez puskatutako emakume ahul bat oroiti ez zezaten. Baserriaren teilatua basoak irentsi eta lantuak entzun ezin izan nituenean soilik erori ziren malkoak nire masailetan behera, hainbeste urtez nire etxea izan ziren mendi eta zeruen azken begirada lausotuz.

La *Argentinak* 1932ko abuztuko egun lehor batez utzi ninduen Amerikako azken mutur hartan. Itsas bidai hark eragindako ondoeza lurra zapaltzearekin batera joango zelakoan nengoen, baina gaur ere astintzen nau euskal itsas-ertza ortzimugan desagertzean hasi zen erru eta alhadura sentsazioak. Buenos Airesen bizi zen lehengusu bati esker laster aurkitu ahal izan nuen lana Recoletako etxe zuri handi batean. Gaztelu hartako erregeak ez zuen ispiluzko zoru haietan bere isla ikusteko astirik izaten eta erreginak mitxoletaz lurrindutako gelan giltzapetuta igaro zuen bizialdi ahula. Bere logelatik lurrera eroritako pilula flaskoen oihartzuna besterik ez zen entzuten noizbehinka, gela hutsetan zabalduz, isilduko zuen beste hitz barre edo oihurik gabe. Gaztelu hartan bazen printzesa bat, basoetan ez ezik labirinto hartako korridoreetan barna sarritan galtzen zena. Haurraren falta sumatzen zuen bakararra ni nintzela egingo nuke zin, baita gurasoek alaba inoiz aurkitu ez zutela ere.

Laster bilakatu ziren ezagunak hiri arrotz hartako kale zabalak eta erreka bihurrien lasterketa zirudien hitz-jario bitxia. Etxe zurian irabazten nuenarekin Villa Luganoko pisua ordaintzen nuen eta gainerakoak itsasoaren bestaldeko baserri haustu hura ordaintzen zuen. Urtebete igaro nuen hala, Arturorekin ezkondu nintzen arte. Arturok egunero ekartzen zituen etxe zurira Perez jaun-andreen gutunak, eta nik egunero irekitzen nion atea, harik eta egun batean gutunen ordeztu eratzun bat ekarri, eta nik baietz esan nion arte. Gizon atsegina zelako egin nuela esaten nion hasieran neure buruari eta batez ere Villa Luganoko pisua utzita baserrira diru gehiago bidali ahal izango nuelako. Gaur badakit soinean daramadan eratzuna bakarrik eta hutsik sentitzen zen emakume batek jarri zuela lehen aldiz, bere burua isolamendu bortitza batera kondentatu zuen katea zela jakin ezinik.

Nirea izan da hobena behar bada. Ezin izan dut berak nahi duen bezala maitatu. Saiatu nintzen, baina segituan ohartu zen nire gogoak Atlantikoaz bestaldeko lur ezezagun haietan jarraitzen zuela. Hasiera batean begiak dizdizka begiratzen ninduen... eta ni ez nintzen izan samurtasun hori itzultzeko gai, ezta Ines jaio zenean ere. Etxea hozten eta hozten joan da, bertan bizi garenak ezezagun hutsak bihurtu arte, eta ni naiz errudun bakarra. Erruduna, lau haur umezurtz utzi nituelako, erruduna beste familia bat sortu eta ahantzi nahi izan nituelako eta erruduna, erru madarikatuagatik ezin izan niolako familia berriari nire maitasun osoa eman.

Zorionez, Ines oso bizkorra izan da betidanik. Ahalik eta hoberen zaindu dut, baina badakit ez dela nahikoa izan. Orain hogeitun urte ditu. Bere aita eta niganako inongo atxikimendurik gabe utzi zuen habia eta egia esan asko arintzen nau. Batzuetan deitu egiten du, eguraldiaz hitz egiten dugu. Inoiz ez ninduen behar izan, eta ez dakit behar duen laguntza nigan aurkitu ezin izan zuelako edo bere izaeraren parte delako den. Dena dela, batzuetan geldiro begiratzen ninduen eta barruko korapilo guztiak ikusiko balitz bezala, nire amesgaiztoez galdetzeko imintzioa egiten zuen, baina hor geratzen zen, mutu, erantzunak ekaitz bortitzegi bat hasiko lukeela jakingo balu bezala. Inesek ez daki bere anai-arrebez ezer, hala nahi izan zuen Arturok, baina nik nire deabruak ulertzen lagunduko liokeela uste dut, zergatik ematen duen beste toki batean nagoela, eta egunen batean egia jakiteak barkatzen ere lagunduko liokeela uste dut.

Beti ezagutu izan ninduten apur bat absente, baina 1936an Argentinara Espainiako gerra zibilaren berriak iritsi zirenean erabat desagertu nintzen. Ideia bakar bat nerabilen buruan bueltak: Xabik gerrara joateko adina zuen. Gauero bisitatzen ninduten gerraren mamuak, hildako horien guztien patua nirea ere izan beharko litzatekeela gogoraraziz. Nire haurrak gosez hiltzen ikusten nituen, baserria errauts bihurtua, Xabi lubaki baten atzean, fusila eskuan, edo larre zabal batean odolusten. Egunero begiratzen nuen gutunik bazen, baina egun batetik bestera erabat desagertu balira bezala zen, ez zegoen haien arrastorik. Inesek arduratuta begiratzen ninduen etxean bueltak emanez eta Arturok bere senetik aterata jarraitzen zituen nire mugimenduak, egun batean eztanda egin zuen arte.

Astelehen eta asteazkenetan esnezalea etortzen zen. Usurbilgoa zen eta bere bisitaldietan niri iristen ez zitzaizkidan berriez galdetzen nion. Banekien Arturo izugarri gogaitzen zuela, ez baitzen euskaraz zipitzik ulertzeko gai. Auskalo, jelsiak barrenak janda, gure hizketaldien atzean amodio aitopenak edo Euskal Herrira itzultzeko planak ez ote zituen entzungo. Bisita hauetako baten ondoren besotik heldu eta atearen aurka zanpatu ninduen. Nolabait banekien gorrotozko begirada haien indarra noizbait ukabilkada bezala eroriko zirela nire gainean. Olatuak bezala astindu ninduten kolpe bakoitzak nire gorputz ahula pareta eta pareta artean

gehiago eta gehiago zokoratuz, kolpe bakoitzak oraindik gelditzen zitzaidan bizi izpia txikituz. Noizbait izan nintzen emakumearen apurrak soilik geratzen dira. Egun hartatik aurrera eta gaur arte zatika erortzen den ubeldu eta zauri puzzle bat izan naiz. Heriotzak beldurra ematen dit, baina ez dut bizitzeko adorerik. Ez dut indarrik.

Ez da horrenbeste denbora igaro azken hogeitaz bidalitako eta jasotako gutunak gordetzen dituen kutxa aurkitu nuenela. Jasotako gutunak ez ziren asko, nahiz eta nik ordura arte zorrotasunez bidali nituen gutun guztiak zeuden, diru eta guzti. Ezer bidaltzen ez nuela ikusita erabat ahaztu nituela pentsatu zuten baserrian, noski. Ordura arte gutunak gerra zela eta iristen ez zirela pentsatu nahi nuen, baina hortxe zeuden denak. Ez ziren desagertu, Arturok nire iragana ezabatzeko beste saiakera bat zen. Ahizparen azken gutuna gorrotoz eta desengainuz blaitua zegoen. Hitz bakoitzean haurren gorroto gutzia sentitu ahal izan nuen. Izan nintzen beste emakume hark senarrari aurre egingo ziokeen, baina bere itzalak dardarti ezkutatu du itotako amorru eta gorroto gutzia.

Ez dut ezer. Ez naiz ezer. Egunak azkar igarotzea besterik ez dut nahi, Ines kartzela honetatik ahalik eta gehien urruntzea. Beranduegi da barkamena eskatzeko, beranduegi da korapiloak eskatzeko. Egia esan ezin dut sinetsi azkenik katramila hau idazteko gai izan naizenik. Inorentzat ez bada ere utzi dut esateko nuen gutzia, zama bat gutxiago dudala sentitzen dut nola edo hala. Nire existentziak geroz eta zentzu gutxiago badu ere bizi izan naizelako, eta nonbait geratuko delako izate krudel honen testigantza. Nire azken egunean giltzapean gorde izan ditudan hitzak airean zintzilik geratuko ez direlako. Orain, begiak itxita nire herriko mendiek besarkatzen nautela pentsatzeak apur bat arintzen dit daramadan pisua. Ia haizea senti eta entzun dezaket haritzak laztantzen eta aireak udaberri usaina du. Instant batez etxean nago berriro.

Duela bi hilabete hil zen Ana. Aurreikusi bezala ez zen jende asko joan ehorzketara. Filmetakoa zirudien ia; jantzi beltzak, aterki beltzak, euri beltza, malko beltzak, indiferentzia estaltzeko alferrikako ezkutu bat. Egia da, birramonak nonbait lagunak bazituen, ez zen izan mundu honetan. Ospakizunaren ostean amonak Anaren gauzak biltzeko laguntza eskatu zidan, ez baitzekien zer demontre egin haiekin. Trapu eta tramankulu zaharrak topatuko genituelakoan ireki genuen armairua. Gure ezusterako amonak ez zuen arropa asko gordetzen, kaxe beteta zeuden tiraderak. Denetarik aurkitu ahal izan genuen. Gehienak, Espainiako gerra zibilari buruzko artikuluak markatuta zituzten 30. hamarkadako egunkari zaharrez zeuden beteta. Amonaren aurpegiera erabat aldatu zen, denbora luzez lurperatuta zirauen altxor sekretu bat lurpetik ateratzen egongo balitz bezala. Egunkarien azpian argazkiak zeuden, ez asko, baina bai Anaren mundu ezezagun harri buruz erantzunak emateko nahikoa. Amona zuri beltzeko familia baten argazkiari so geratu zen, hatzaz Ana seinalatu zidalarik. Argitasun liluragarri bat igortzen zuen, zinez zaila zen amonaren etxeko mamuaren begi lausoak, denborak eta zorigaitzak jandako begi txikituak biziz betetako emakume harengan aurkitzea. Besoetan zuen haurra erraz asko izan zitekeen amona Ines, baina Anaren ondoko gizona ez zen Arturo. Ez, begi iluneko gizon haren bisaia beste sosegu bat zuen. Bikotearen adin desberdinetako beste hiru haur zeuden.

Niri gehiago kostatu zitzaidan kutxa haietan gordeta zeuden orri horituek esan nahi zuten gutzia erabat ulertzea, baina amonarentzat argazki hori nahikoa izan zen ezpainetan trabatuta geratu ohi zitzaizkion galdera guztiak argitzeko, urte haietan guztietan emakume hari

barru barruan leporatzen zion guztiaz damutzeko. Amonaren begietan ahokatzen ez ziren pieza guztiak bat egiten zutela ikusi ahal izan nuen, malkoak masailean behera tantaz tanta labaintzen ziren bitartean.

Kaxetako batean gordeta zegoen idazki luzea itzultzea lortu genuenean bagenekien zein izan zitekeen istorioaren nondik norakoa, eta hala eta guztiz ere bihotza txikitu zigun kontakizunaren etsipen gordinak. Anak La Argentina hartu zuen unetik negu gorria besterik ez zuen ezagutu. Bakardadea eta errua izan ziren bere egunerokotasuna zizelkatu zuten hitzak. Amonak ez zuen aise gainditu jazotakoa, eta egun batzuk absente igaro zituen, bere amaren gotorleku berean beharbada. Goiz batez etxeko atarian agertu zitzaidan hegazkin txartel batekin. Kontakizuna amaitu behar nuen, zauria itxi. Hala bada nire urrutiko arbasoen sorlekura egin nuen hegan, istorio horren gainontzeko protagonistek egia jakin zezaten.

Dorronsorotarrak aurkitzea ez zen izan lan makala, baina azkenean lortu nuen nirekin elkartzeko prest agertu zirenak mahai baten inguruan biltzea. Gutuna arretaz irakurri zuten denek, aspaldi sartutako arantza bat kentzean sentitzen den mina aurpegietan marrazten zitzairen bitartean. Argazkiko haur txikia zen bizirik zirauen alaba bakarra; hark azaldu zizkidan gerrarekin batera familiak bizi izandako gora-behera latzak. Azkenean baserria saldu beharra izan omen zuten eta Luisa hamasei urte zituela hil zen gaixotuta. Ageda urte mingots horiek ahalik eta emekien saiatu zen kontatzen baina itsasoaren alde hartako istorioa ez zen gure aldean bizitakoa baino xamurragoa. Jesusen alabak bere aitak azken egunera arte amari izan zion gorroto itsuaren berri eman zidan. Zoritxarrez egiak ezin izan zion oinazez betetako arima horri bake pixka bat eman. Xabiren ilobak, oster, bere aitona banantze hura modu erabat desberdinean bizi izan zuela azaldu zuen. Aitona, bere haurrengatik, maite zuen guztiari uko egin zion emakume indartsu bati buruz hitz egin ziola, eta gerra garaian, erbesteratua izan zenean ama aurkitzen saiatu zela. Xabik, bere anai-arrebak ez bezala, ez zuen sekula amak albo batera utzi zituela sinistu.

Dorronsoro familiak zinez eskertu dit urteetan ezkutuan egon den eta barrutik urratzen zituen istorioa argitzen lagundu izana. Atal gogor bat itxi dute, zauria ondo sendatzea espero dut. Nik, aldiz, zerbait berria hastear dagoela sentitzen dut. Egun batzuk hemen igarotzea pentsatu dut, Anaren gogoak leku hau utzi ezin izana ulertzen hasia bainaiz. Badakit hona itzuli dela, hemen dagoela, etxean azkenik.